

## Harizko panpinak noiz etorriko

Txotxongilo Jaialdia, kultur jardunaldien baitan ▶ 3



## Etxeko lantxoak egiteko ikastaraok

Ama talde bat ari da horretan ikasten ▶ 7

# Harpidedun kanpaina hasi da HITZA sendotzeko

**LAGUNTZA** ▶ Harpidedun guztien laguntza behar da proiektua indartu eta aurrera egiteko

**KOPURUA** ▶ 2004 urteko diru laguntza gisa 42 euro eskatzen zaie etxean jasotzen dutenei ▶ 2

«Ahaleginduko naiz herriaren alde lan egiten; asko dago egiteko»

**ALKIZA** ▶ Antonio Zubiaurre zendu berriaren kargua hartu du orain gutxi Jon Rotetak; bera izango da alkate datozen bi urte eta erdian ▶ 4

IMANOL GARCIA



lazko festa herrikoia. HITZA

## Hauspoak antolatuta, Babarrun Festa egingo dute bihar

Bazkarirako txartelak salgai dira tabernetan; herri kirolak izango dira eguerdi aldera ▶ 6

## Ipuin lehiaketa, bortizkeriari lotuta

Lanak hilaren 19a arte jasoko dituzte ▶ 4

## Kultur hamabostaldia antzinako erara bukatuko dute gaur

120 lagun bilduko dira herri afarian; erromeria egingo dute ondoren ▶ 6



HITZA

## Mendiko argazki rally-a, bihar Goiatzen

Goiatz eta Beizaman atera behar dira ▶ 5

KOMUNIKABIDEAK ▶

# Urteko harpidedun kanpaina hasi du HITZAK, proiektua sendotu eta handitzeko

42 euroko laguntza eskatzen zaie harpidedunei; ehunka lagunek ematen dute urtero laguntza, baina gehiagoren beharra dago autofinantziaketan gora egiteko

JOXEMI SAIZAR

Aurreko urteetan bezala, HITZAK 2004ko harpidedun kanpainari heldu dio egun hauetan proiektua sendotzeko eta autofinantziazioan gora egiteko. Egunero TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA etxean jasotzen dutenek, gutun bat ari dira jasotzen egun hauetan kobraketa kanpaina honen berri emanez. Bertan azaltzen dira kanpainaren arrazoiak eta 42 euroren diru laguntza eskatzen da. Horrekin batera kopuru hori kasu bakoitzean nora bideratu behar den zehazten da eskutitzean.

## Ezaugarriak

Beste urtebete egin du eskualdeko euskarazko egunkariak. Urtean 285 egunez kaleratzen da, 8 orrialde ditu, egunkari plurala eta kalitatekoa da, Tolo-



Eskualdeko euskarazko egunkaria sendotzen ari da hiru urteotako ibilbidean. O. ESKITXABEL

saldeko eta Leitzaldeko 30 herrietan egunero 7.500 ale bantzen dira buzoietan, euskararen normalizazio tresna garrantzitsua da milaka familia

egunero euskaraz irakurtzen jartzen dituelako, webgunea du eta eskualdean erreferentzia da informazio aldetik. Aurtengo berrikuntza Leitzaldera

zabaltzea eta www.tolosaldekohitza.info webgunea martxan jartzea izan dira. Aurtengo aurrekontua 500.000 eurokoa dela esan behar da.

JOSE MANUEL ATXAGA ▶ TOLOSALDEKO BERRIAK KULTUR ELKARTEKO ORDEZKARIA

## «Egindako lanagatik eta jendearen erantzunagatik poza sentitzen dut»

Bertako (*Berria* kaleratzen duen EKT enpresaren ordezkaria) eta Galtzaundi Euskara Taldearekin batera, HITZA argitaratzen duen Tolosa Herria Hedabideak S.L. enpresako hirugarren bazkidea da Tolosaldeko Berriak kultur elkarte, eskualdeko 65 gizarte eragile (kultura, kirola, gazteak, ikastetxeak, enpresak eta abar) elkartzen dituen alegia. Bere ordezkari den Jose Manuel Atxagarekin mintzatu da HITZA hasi berri den harpidedun kanpainaz.

**HITZAREN sorreran parte hartu**

**zenuen. Zer sentitzen da hiru urte bete behar dituenean?** Nola azaldu sentipen hori? Guraso batek bost edo sei seme-alaba dituenen denak berdin maitatzen ditu. Nik ere hala ikusten dut. Euskarazko egunkari honen kasuan kontzientzia eta konszientzia hitzekin definituko nuke nolabait. Lan bat egin eta ondo ez denean ateratzen, lasaitasuna izan dezakezu kontzientziak agindutako lana izan denean. Bestela etsipena gelditzen zaizu. HITZAREN kasuan ez da hori gertatzen. Egindako lanagatik

eta jendearen erantzunagatik poza sentitzen dut. Konszientzia hori badut.

**Zer nolako erantzuna izan du HITZAK?**

Onarpen gero eta handiagoa eta zabalagoa duela iruditzen zait, bai erakundeen aldetik, bai herritarren aldetik. Jendeak bere beharra ikusten du, eguneroko gosaria bezala hartzen du, modu natural batean, berriak jakiteko. Albisteak emateko garaian asmatu egiten du.

**Zergatik lagundu behar da HITZA diruz?**



J. SAIZAR

Proiektua sendotzen joan da-din. Aurtun Leitzaldera zabaltzea da. Nafarroara zabaltzea oso garrantzitsua da guretzat.

Webgunea martxan jarri da. Gauza gehiago egingo dira eta beti erakundeen menpe ez dugu egon nahi. ◀

## DATUAK ▶

**Eskatutako kopurua.** 42 euro.

**Lehendik laguntza eman dutenek.** Kontu korrontetik kobratuko zaie, ezezkorik ezean, azaroaren 15ean.

**Orain arte laguntza ez dutenek eman.** Bezero Arretan kontu korrontearen zenbakia eman edo kopurua Euskadiko Kutxako kontu honetan sartu: 3035 0026 22 0260058564.

**Bezero arreta.** 943 30 43 46 (astelehenerdik ostiralera 08:30etik 20:30era) eta harpidetza@hitza.info.

## Arrazoiak

Harpidedunei eskatzen zaien diru laguntza hau proiektua sendotzeko eta buruan ditugun beste proiektu batzuk martxan jartzeko da. Ehunka eta ehunka harpidedunek ematen dute dagoeneko laguntza hori urtero, baina gehiagoren laguntza behar du HITZAK. Autofinantziaketan gora egin behar du proiektuak, beti erakunde publikoen menpe ez dadin egon.

Harpidedunek abantaila batzuk izaten dituzte laguntza hori emateagatik: promozio sariak, antolatutako zozketetan parte hartu, dendetan deskontuak...

**HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu**

**943 30 43 46**

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



KULTURA ▶

IRATXE ETXEBESTE

Tolosako Abesbatza Lehiaketaren 36. edizioaren itxiera ekitaldiarekin egin genion orain sei egun azaroari harrera, eta hilabetea amaitzeko herrian eta herritik kanpo sona handia duen beste jaialdi bat izango da: Titirijai Txotxongilo Jaialdia. Azaroa hilabete garrantzitsua da, izan ere, tolosarren tzat. Hala ere, txotxongiloen mundu liluragarriaz gozatzeko bai, baina beste ekitaldi arrakastatsu batzuetarako aukera ere eskainiko digu Udalak datozen egunetan: besteak beste, liburu azoka eta Babarrun Festa izango direlako abendua heldu aurreko egunetan. Hona hemen azaroko kultur ekitaldiak eta jarduerak, banan-banan zehaztuta:

AZOKA

**Liburu Azoka.** Euskadiko Liburu-Ganbarak antolatuta, Liburu Azoka izango da hilaren 19tik 28ra bitartean San Frantzisko pasealekuan. Goizetik eguerdira eta arratsaldetik iluntzera izango dira azokako standak zabalik, eta liburuak ikusgai izateaz gain salgai ere jarriko dituzte liburu saltzaileak.

BABARRUN FESTA

**Lehiaketak.** Urtero bezala, Babarrun Festa antolatuta du Tolosako Udalak hilebete honetan. Askotariko ekitaldiak egingo dituzte festa horren aitzakian: besteak beste, larunbatean, hilak 20, Babarrun Ale Lehiaketa egingo dute Trianguloan eta eta igandean, hilak 21, Lehiaketa Gastronomikoa izango da Ferialekuan. Igandeko lehiaketaren ostean bazkari herrikoa izango da, leku berean. Bestalde, larunbatean, hilak 20, dantza emanaldia izango da Beotibar pilotalekuan Tolosako Udaberri, Ibarrako Alurr eta Villabonako Oinkari dantza taldeen eskutik. Hiru dantza talde horiek antolatutako ekimena da, eta Tolosako Udalak eta Hitzak babestutakoa.

ERAKUSKETAK

**Txotxongiloak.** Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko erakusketa izango da azaroaren 27tik abenduaren 5era Aranburu Jauregian. Erakusketa ikusteko aukera egunero izango da, astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik, 17:30etik 20:30era. **Beldurraren aretoa.** Haur Liburutegiak antolatuta, beldurraren aretoa izeneko erakusketa izango da, hilaren 29a bitarte, Kultur Etxean. Astele-

# Abesbatza lehiaketatik txotxongiloen jaialdira

Askotariko ekitaldiak antolatu ditu Udalak hilabete honetan: garrantzitsuena, urteroko Titirijai Txotxongilo Jaialdia

henetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara izango da zabalik. Antolatzaileek bisita gidatuak antolatu dituzte, halaber, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleentzat. 09:30etik 11:00etara izango dute ikaste-txeetako arduradunek bisita gidatuak egiteko aukera.

HITZALDIAK

**'Beldurraren trataera ipuinen bidez'.** Juan Carlos Alonso psikologoaren eskutik, *Beldurraren trataera ipuinen bidez* hitzaldia izango da hilaren 16an eta 17an Kultur Etxeko areto nagusian. Gurasoentzat eta irakasleentzat izango dira solasaldiak, 18:00etan hasita.

IPIIN KONTAKETA

**Beldurra.** Hilaren 25ean, ipuin kontaketa izango da Haur Liburutegian, Ray Buenoren eskutik. Beldurra gai hartuta ariko da ipuin kontalaria arratsaldeko seietatik aurrera, eta antolatzailerik esan dutenez, 7 eta 12 urte arteko haurrei zuzendutako saioa izango da.

JAIALDIA

**Txotxongilo Jaialdia.** Titirijai Txotxongilo Jaialdia izango da hilaren 26an hasi eta abenduaren 5era arte, Leidor zinemaren antzokian, Casinon, Jesuiten, Antonio Maria Labaien kultur etxean eta Aranburu Jauregian. Sarrerak Kultur Etxean jarriko dituzte salgai datozen egunetan.

JARDUNALDIAK

**'Munduko ipuinak'.** Josu Iztueta abenturazale tolosarraren eskutik, Nairobitarra autobusaren itxurako liburu eta mahai-jolasaren aurkezpena izango da hilaren 12an, ostiralarekin, arratsalde partean. Era berean, diapositiba emanaldia, ipuin kontaketa eta mahai-jolasen eta liburuen zozketako aukera egunero izango da, astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik, 17:30etik 20:30era. **Jardunaldi magrebiarrak.** Hilaren 17tik 20ra, eta Irazki elkarte kulturantzaren eskutik, jardunaldi magrebiarrak izango dira Kultur Etxeko areto na-



Lurralde askotako txotxongiloak ikusiko dira laster herrian. I. ETXEBESTE

gusian. 19:30etik aurrera hitzaldiak izango dira egunero, eta larunbatean, hilak 20, ipuin kontaketa, degustazioa, musika eta hennazko pintura taillerra egingo dituzte, 11:00etatik 14:00etara, Trianguloan. Musika emanaldia, berriz, Plaza Berrian izango da. **Gazteentzako jarduerak.** Tolosako Udalak ekimen berri-tzaileak jarri ditu abian gatzetxoek asteburuetan zer egin izan dezaten. Gazte Topaguneak askotariko ekimenak prestatu ditu larunbat eta igandetarako, eta horietan parte hartu nahi duenak Kultur Etxera agertu besterik ez du, larunbatetan edota igandetan. 16:00etatik 20:00etara bitartean. Azaroaren 13tik aurrera hasiko dira Gazte Topaguneko kideak asteburuetako ekimenak eskaintzen. **Antzerkia.** Hilaren 20an, larunbatez, *Antzerkia zeinuen hizkuntzan* jardunaldiak izango dira, Tolosaldeko eta Goierriko Gainditzten Pertsona Gorreren elkarteak antolatuta, Leidor zinemaren antzokian. Ekitaldia 17:30ean hasiko da.

MUSIKA

**Santa Zezilia.** Musika Bandak

eta herriko taldeek Santa Zezilia Eguneko kontzertua eskainiko du azaroaren 28an, 12:00etan, Leidor aretoan.

ZINE-KLUBA

**'Zaman, el hombre de los juncos'.** Amer Alwan zuzendariaren *Zaman, el hombre de los juncos* filma hilaren 11n izango da ikusgai, Leidor zinema antzokian, 21:30etik aurrera. **'Machuca'.** Andres Wood zinema zuzendariaren *Machuca* filma hilaren 18an izango da ikusgai, Leidor zinema antzokian, 21:30etik aurrera. **'Capturing the Friedman'.** Andrew Jarechi zuzendariaren *Capturing the Friedman* filma hilaren 25ean izango da ikusgai, Leidor zinema antzokian, 21:30etik aurrera.

ZINEMA

**Zineskola.** Zineskola, zinema eskolak ikasle gazteentzat. Hilaren 22an izango da ekimen hori, Leidor zinema antzokian, eguerdi aldera. **Tinko.** Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta, Tinko zinema euskaraz izango da hilaren 24ean, goiz partean, Leidor zinema antzokian.

'EGUNKARIA' AUZIA ▶

«Benetako delitua 'Egunkaria' ixtea izan da»

Otamendik eta beste auzipetu batzuek prentsaurrekoa eman zuten atzo

ERREDAKZIOA

*Egunkaria* auzian Juan del Olmo epaileak zortzi pertsona auzipetu dituela eta, atzo komunikabideen aurrean agerraldia egin zuten haietako batzuek, eta argi eta garbi utzi nahi izan zuten Del Olmo egotzen dizkien «delituak gezurra» direla. «Legezkoak izan dira sortu ditugun enpresa eta elkarte guztiak. Ez dugu inongo harremanik izan ezin erakunde armaturarekin, ez enpresa gisa ez eta pertsona gisa ere», adierazi zuen Joan Mari Torrealdai auzipetuak, beste guztien zinean.

Harekin batera, Txema Auzmendi, Iñaki Uria, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga auzipetuak ere izan ziren prentsaurrekoan, baita Luis Goia, Inma Gomila eta Fermin Lazkano hasieran inputatu arren orain kargu gabe geratu direnak ere. Gainerakoetatik, bi hilda daude —Joxemi Zumalabe eta Martin Ugalde—. Beste bi auzipetu Pello Zubiriak eta Xabier Alegriak ezin izan zuten parte hartu, aurrenekoa osasun arazoengatik, eta bigarrena kartzelan delako Udaltzita auziagatik.

«Babesgabe» sentitzen direla eta ez dutela «epai justu bat» jasotzeko konfiantzarik aipatu zuten. «Benetako delitua *Egunkaria* ixtea izan da. Prozesamenduarien itxiera justifikatu nahi du». Erakunde eta herritarren babesa eskatu dute («bidegabekeriari aurre egiteko»).

**ARAMBURU**  
Salgai (Tolosa). Pisu Gorosabel 40ean, 50.000.000 pta  
Salgai (Tolosa). Pisu altua igogailuarekin Nafarroa Etorbidean, 49.000.000 pta.  
Salgai (Tolosa). Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m<sup>2</sup>.  
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementari kalean, Pizzeria edo bokokategia jartzeko egokia.  
Alokatzeko (Tolosa). Bulegoa Korreo kalean 1.pisua igogailuarekin  
Alokatzeko (Tolosa). Nafarroa Etorbidean garaje irrikak.  
Alokatzeko (Tolosa). Garaje ibxia Amaro azoan, Karabana batentzako egokia.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

## JON ROTETA ▶ ALKIZAKO ALKATEA

IMANOL GARCIA

Antonio Zubiaurreren heriotzaren ondoren, alkate berria aukeratu behar zuen Alkizako udalbatzarrak eta Jon Roteta izan da posturako hautatua. Pasa den bilkuran egin zen bozketa eta aho batez aukeratu zuten. Alkizako Abertzale Ezkertiarrak talde independente-ko zerrendan bere aurretik zeuden Jose Mari Aranzabek eta Maite Iruretagoienak ez zuten hautagai izan nahi eta beraz Rotetari egokitu zitzaion. Alkate berriak 27 urte ditu eta ogibidez arotza da. Antzietia baserrian bizi da eta afizio nagusia ehiza du. Udal taldean ez da berria, aurreko legealdian zinegotzi izan baitzen. Orain alkate izango da datozen bi urte eta erdian.

**Pentsatzen zenuen batzarrean alkate aterako zirela?**

Ez, Joxe Mari Aranzabe aterako zela uste nuen eta ideia horrekin joan nintzen batzarrera. Ez nuen berez alkate izateko batera asmorik, baina zerrendan aurretik zeudenek ez zuten nahi izan eta horregatik atera nintzen ni.

**Aurreko alkatea, Antonio Zubiaurre, nola gogoratzen duzu?**

Urte askotan beti herriaren alde egin zuen lan. Batzuentzat ondo, beste batzuentzat gaizki, baina beti herriaren alde aritu zen.

**Eta zure burua nola ikusten duzu alkate postuan?**

Oraindik nahiko berria naiz zeregin honetan eta horregatik oraindik egin behar dudana jabetzen ari naiz. Ikusten dut, halere, lan asko dagoela egiteko eta ahalegina egingo dut herriaren alde lan egiteko.



I. GARCIA

## «Ahal dudana hobeto egiten eta herritarrei laguntzen saiatuko naiz»

Antonio Zubiaurreren heriotzaren ondoren alkate berria aukeratu behar zen Alkizan eta Jon Roteta izan da hautatua

Antonio Zubiaurreren pare izaten zaila izango da, baina saiatuko naiz ahal dudana hobeto egiten eta ahal dudana gehiena laguntzen herriko jendeari. Seguraski denentzat ez ditut gauzak ondo egingo, baina egiten dudana guztia intentzio onarekin egingo dut.

**Nolakoak izan dira lehenengo egunak?**

Batera eta bestera ibili naiz nire firma autorizatze eta zerbait nahastua horrekin guztiarekin, baina espero dut aurrerago lasaia ibiltzea.

**Hain justu, dokumentuak sinatzea izango da zeregin nagusietakoa.**

Bai, hala da. Urtearen bukaera arte astean bitan etorriko naiz udaletxera, astearte iluntzetan eta ostegun eguerdian. Idazkariarekin egon, ikusi zer dagoen egiteko eta horrela ibiliko naiz.

**Zein dira eskuartean dituzten proiektu nagusiak?**

Onartuta eta orain martxan jarri behar ditugu proiektu batzuk ditugu. Etxebizitzak eraikiko dira Peru azpiko lursailen eta horretarako kontratistezako subasta irekita dago. Bestalde, lur azpiko zaborrontziak jarriko ditugu herriko leku ezberdinetan. Gero, gauza asko daukagu egiteko, baina hauek aurrera ateratzeko diruaren baitan gaude.

**Diru gehiago edo gutxiago izatea zeren baitan dago?**

Foru Aldundiak urtero diru kopuru bat ematen du, biztanle kopuruaren arabera. Hortik aparte diru laguntzez baliatu behar izaten dugu proiektuak aurrera ateratzeko. Gainera, Alkizak ez dauka industriarik eta beraz, ezta horrek ematen duen dirusarrerarik ere.

## ANOETA ▶ IPUIN LEHIAKETA

## Bortizkeriaren Aurkako Eguna dela eta ipuin lehiaketa antolatu dute

Azaroaren 19a izango da idazlanak aurkezteko azken eguna

I. GARCIA

Bortizkeria Sexistaren Aurkako Eguna azaroaren 25an dela eta Anoetako Udalak eta Ikastolak ipuin lehiaketa antolatu dute, ondorengo gaia oinarritzat hartuta: «Bazen behin emakumeak errespetu osoz tratatzen ziren planeta bat...». Maila ezberdinak izango dira: DBH 2, DBH 3 eta DBH 4 —60 euroko ordainsaria maila bakoitzeko—, 17 urtetik gora

—100 euroko saria— eta 26 urtetik gora —150 euroko saria—. DBH 2tik DBH 4ra Ikastolako ikasleentzat antolatua; aldiz, 17 urtetik gora irekia edonori, beste herrietako jendeari ere. Saridunen deklamazioak azaroaren 25ean egingo dira ikastolan, sari banaketarekin batera. Idazlanak posta elektronikoz bidal daitezke kultura.anoeta@udal.gipuzkoa.net helbidera edo bestela Anoeta-ko udaletxean aurkeztu sobre

baten barruan, aurkezlearen izen-abizenak, adina eta telefonoa jarri. Azaroaren 19a da lanak aurkezteko azken eguna. Idazlanak euskaraz izango dira, 26 urtetik gorakoentzat gaztelaniaz ere onartuko dira. Ordenagailuz aurkeztuko dira eta 40 lerro gutxienez eta 50 gehienez izango dituzte. Originak izan behar dira eta aurretik beste inon aurkeztu gabek. Partaide bakoitzak idazlan bakarra aurkeztu dezake.

## IRURA ▶ IKASTAROAK

## Ikastaroetan izena emateko epea zabalik

Hainbat aukera eskaintzen ditu Udalak; azaroaren 12a izena emateko azken eguna

I. GARCIA

Iurako Udalak martxan jarriko ditu hainbat ikastaro. Mantentze gimnasia, areto dantza, sukaldaritza, antzerkia eta ipuin kontaketa dira eskaintako aukerak. Mantentze gimnastika 2004-05 ikasturtean zehar izango da eta besteak hilabete honetan eta abenduan zehar burutuko dira. Ikastaro hauetan interesa du-

ten guztiak azaroaren 12a, ostirala, dute azken eguna izena emateko Iurako udaletxean.

Ikastaroen eguna eta ordu-tegiak parte-hartzaileek beraien adostuko dute. Jadanik zehaztuta dagoena ipuin kontaketa ikastaroaren egunak dira: azaroaren 22 eta 29a eta abenduaren 9, 13 eta 20a. Klaseak bi ordukoak dira eta irakaslea Joxean Karrere ipuin-kontalaria izango da.

BIDEGOIAN ▶ KULTURA

# Mendiko argazki rally-a, Goiatz eta Beizama artean

Bihar izango da Azpeitiko IX. Udazkeneko Argazki Rally-a; izena Goiatzeko plazan eman behar da 09:00etan



Goiatzeko plazan izango da 09:00etatik 10:00etara argazki rally-ko izen-ematea. O.ESKIXABEL

## OLAIA ESKITXABEL

Goiatz izango da Azpeitiko Argazki Elkarateak eta Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatzen duten Mendiko argazki rally-aren abiapuntua. Bertako plazan aurkitzen den Dendale jatetxean eta 09:00etatik 10:00etara bitarte eman behar dute izena bihar IX. Argazki Rally-an edota XV. Udazkeneko Argazki Rally-an parte hartu nahi dutenek.

Hamasei urtez azpiekoek bost euro ordainduko dituzte izena ematerakoan eta helduegok, hamar euro. Trukean, bakoitzari 36 argazkiko diapositiba emango diete antolatzaileek. Prezioaren baitan sartzen da Beizaman egingo duten hamaketakoa ere. Goiatz-Beizama-Goiatz izango da rally-ko parte-hartzaileek egingo duten ibilbidea; amaiera 14:30ak aldera izango da hasitako leku berean. Amaitzean, bazkaltzen geratu nahi dutenek izena ematerakoan zehaztu beharko dute.

## Ingurunea, argazkietan

Mendiko argazki rally-ko argazkiak hainbat gairekin izan behar dute lotura; gehienak naturarekin eta mendiarekin lotutakoak dira. Hala ere, antolatzaileek zehaztu dutenez, rally-aren hasieran emango

dira jakitera argazki rally-aren gai zehatzak eta ibilbide orria, beste hainbat argibiderekin batera.

Rallyan ateratako diapositibak aukeratu eta azaroaren 25erako Azpeitiko Argazki Elkartera bidali behar dira (Julian Elorza hiribidea, 4, behea. Azpeitia).

Argazki lehiaketan parte hartzen dutenen artean sari ugari banatuko dituzte; helduen maila, gaztetxoek maila eta herrikoen (azpeitiarren) maila bereiziko dituzte antolatzaileek. Hiru mailetan lehenengo hiru sailkatuak eskuratuko dute saria.

Helduen mailan, hamasei urtetik gorakoek argazkiak sarituko dituzte. Lehenengo saria 180 eurokoa izango da, bigarren, 150 eurokoa eta hirugarren saria 120 eurokoa izango da.

Gaztetxoek mailan, hamasei urtetik azpiekoek argazkiak sarituko dituzte. Lehenengo postuan sailkatutakoak 30 euro lortuko ditu, bigarrenak 20 euro eta hirugarrenak 15 euro jasoko ditu. Herriko lehenengoak 90 euro jasoko ditu. Sari horietaz gain, argazki onena ateratzen duenak 60 euro eskuratuko ditu. Saritu guztiak garaikurra jasoko dute Azpeitiko Argazki Elkarteren eta Lagun Onak Mendi Bazkunaren eskutik.

## AMEZKETA ▶

### San Martinetako bazkarirako izen-ematea

San Martin egunerako, azaroaren 11rako, bazkaria antolatu du Udalak Behartzana jatetxean; bertara joan nahi dutenek txartelak erosi behar dute jatetxean bertan. Asteartea, azaroaren 9a, baino lehenago, erosten dutenek 22 euro ordainduko dituzte; ondorengo egunetan erosten dutenek, berriz, 25 euro. Mañukorta eta Mendizabal bertsoari eta Xapre eta bere laguntzailearen doinuek alaituko dute bazkaria. Arratsaldean, haurrentzako ekitaldiak izango dira.

## BALIARRAIN ▶

### Babarrun eta gaztain-jaterako txartelak saltzen

Datorren igandean, azaroaren 14ean, babarrun eta gaztain-jatea egingo dute Baliarraingo pilotalekuan. Gaur arratsaldean, bazkarirako txartelak saltzen pasatuko dira baserriz-baserriz. Txartelak 20 euroko salneurria dute. Bazkarirako txartelekin batera, bazkarian zozketatuko den txerriaren txartelak ere salduko dituzte. Hamar zentzikotik tirak bi euroko prezioa izango du.

## TOLOSA ▶

### Tolosako Inauteri piezak entzungai Legazpian

Migel Zeberio tolosarrak zuzentzen duen Et Incarnatus orkestrak kontzertua eskainiko du bihar Legazpiko antzokian 13:00etan. Datorren astean grabatzeakoak diren Inauteri piezen diskoko doinuek joko dituzte, besteak beste, horietako batzuk lehen aldiz entzun ahaliko dira.

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetalde.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarralde.** Osasun etx.: 672411  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Tolosa.**  
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
**Villabona.** Anbulat.: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

### GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
▶ Taxia: 67 04 20  
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Olarreaga, A. Korreo kalea 2 (Tolosa). 943 67 01 28  
Erbiti O. Lizarraga 7 (Leitza). 112

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_publici@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.  
villabona\_aitz@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoetalde.** 687 41 00 22  
anoetalde@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarralde.** 687 41 00 32.  
ibarralde@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitzalde.** 687 41 01 18.  
leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Kamareroa.** Kamarero/a behar da 40 orduko kontratupean, astelehenetik larunbatera. 635 70 05 58.

### SALGAI

**Soinu ekipoa.** Soinu ekipoa osoa salgai. Argibideetarako deitu: 943 67 48 06 / 943 11 77 38.

**Autoa.** Opel Vectra Sport salgai baldintza onetan. 656 99 12 79.

**Apartamentua.** Anoetako plazan. Guztiz berritua. Berokuntza sistema eta gasarekin. 615 76 77 64

### GALDUTAKOAK

**Ardiak.** Alegiko baserri batetik ardiak faltatu dira. Inork ikusi baditu, deitu: 635 20 36 78.

**Txakurkumea.** Hiru hilabeteko txakurkumea galdu da Gaztelu eta Berastegi artean. Deitu: 943 672 010 edo 943 675 872.



Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria



**JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ**

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55  
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1  
Txarama auzoa • 20491 Leaburu

## IBARRA ▶ BABARRUN FESTA



Giro polita sortzen da urtero Ibarrrako San Bartolome plazan bazkarian elkartzen direnen artean. HITZA

# Babarrun Festa antolatu du Hauspoak bihar herriko plazan

Eguerdian, herri kirol proba desberdinak izango dira ikusgai eta bertarutzen direnentzat parte-hartze irekia izango da

## IÑIGO TERRADILLOS

Urtero bezala, aurten ere, festa herrikoia antolatu du Ibarrrako Hauspoa kultur taldeak bihar. Giro ona sortu eta herriko jendearen arteko erlazioa sustatzea izaten da helburua eta haurrek, gazteek zein adinekoek hartzen dute parte.

Festa honetako puntu garrantzitsua Ibarrrako plazan egingo den eta herriko elkarte- etako sukaldariek prestatuko duten babarrun bazkaria izango da; babarruna jango da, aza, txorizoa eta mondejuarekin batera. Bazkariaren ostean, berriz, Hauspoa elkartekoek adierazi duten bezala, giroa alaituko duten herriko trikitilari eta bertsolariak izango dira bertan.

Bazkaria baino lehen, festa

eguerdian hasiko da, San Bartolome plazan ikusgai izango diren era guztietako herri kirol probekin.

Proba hauek kompetizio helbururik gabekoak dira, ikuskizun polita eskaini eta herriko jendeak parte hartzea nahi dutela aipatu dute festa honetako antolatzaileek.

Fardo botaketa prestatu dute eta nahi duten guztiek proba honetan ahalegintzeko aukera izango da. Txinga saioan 50 eta 25 kiloko pisuak jarriko dira aukera zabalagoa izateko. Zaku karrera eta koxkola apostua ere izango dira, eta azkenik, sokatiran neska-mutilen taldeak eratu dira elkarren aurka lehiatzeko.

Festa giroa sortu nahi da, herrikoia izan dadila, lagunartean herritarrek eta bertarutzen

direnak goiz atsegin bat izatea lortu nahi da.

Biharko bazkarirako txartelak Ibarrrako tabernetan edo elkarteetan eskatuta lortu ahal izango dira. Helduentzat 12 euroren truke daude salgai txartelak eta 16 urtez azpikoentzat berriz, 6 euro ordainduta eros daitezke.

## BABARRUN FESTA ▶

Hauek dira Ibarrrako Hauspoa kultur elkarteak biharko antolatu dituen ekitaldi desberdinak.

## EGITARAUA

**12:00.** Herri kirolen emanaldia Ibarrrako plazan: fardo botaketa, txinga saioa zaku karrera, koxkola apostua eta sokatira. Herritarren eta bertarutzen direnen parte-hartzea irekia izango da.

**14:30.** Babarrun jatea Ibarrrako plazan. Bazkalostean bertako trikitilari eta bertsolariak izango dira.

## IBARRA ▶ KIROLAK

## EHU-ren aurkako derbia gaur Belabietan

Hiru puntuak lortu behar ditu Ibarrrak, sailkapenean gora egin nahi badu

## I.TERRADILLOS

Ibarra areto futbol taldeak gaur EHU Gipuzkoaren aurka jokatu du 18:30ean Ibarrrako Belabietan kiroledegian.

Donostiako taldean Ibarrrako jokalaririk izandako Mauro eta Merinok jokatzeko dute, eta lehengoaren kasuan, bere anaia Fernando izango du aurrez aurre Ibarrrako taldean.

Partida oso garrantzitsua da bi taldeentzat, baina Ibarrrarentzat, batez ere, beste porrot batek sailkapeneko azken postuetan jarriko bailuke.

Orain arte izan duen zorte txarra ezitea eta huts egiteak zuzentzea espero da eta gaurkoan hiru puntuak etxean jokatzea, horrela egoera lasaigoan kokatzeko eta goiko postueti begira jartzeko.

Bestalde, Ibarra eta EHU Gipuzkoaren arteko partidaren aurretik jubenilen taldeak jokatuko du. Lauburuk Irurzungo Xota taldea izango du aurkari bezala.

Ibarrrako taldeak indartsu ekin dio ligari, hiru garaipe batu baitituzte hiru partidetan eta 30 gol sartu guztira.

## OREXA ▶ KULTUR HAMABOSTALDIA

## Hamabostaldiari gaur amaiera antzinako erara

120 lagun inguru bilduko dira gaurko herri afarian; ondoren erromeria izango da



Jende ugari hartu zuen parte XVII. Uitz-i-Orexa ibilaldian. HITZA

## I.TERRADILLOS

Pasa den urriaren 23an eman zioten hasiera Orexa Ruper Ordorikaren kontzertuarekin Kultur Hamabostaldiari eta gaur bukatuko da antzinako erara egingo den afari herrikoiarekin. Egun guzti hauetan denetarik izan da; musika, hitzaldiak, antzerkia, ibilaldia... Adin guztietako jendeak gozatu ahal izan du antolatutako egitarauarekin.

XVII. Uitz-i-Orexa ibilaldia aipatu behar da, ekitaldi hau

baita Kultur Astea hasi zenetik mantendu den bakarra eta aurtengoan 125 lagun inguruk hartu zuen parte. Bestalde, aurten lehenengoz egin dute hamabostaldia, aste batean ekitaldi guztiak sartu ordez, egun gehiagotan banatuzko.

Amaitzeko egingo den afaria 21:00etan izango da eta 120 pertsona biltzea espero da. Erdi Aroan oinarritua izango da eta afalostean erromeria egingo da Iñaki eta Garrirena.

**NATURAL - NATURALAK**

• Era naturalean eginak  
• Gaztak, yogurtak, txorizozkoak  
• urdaiazpikoak, odolkiak  
• eta beste hainbat produktu.

**Mahala**

BASERRIKO PRODUKTUAK

Mahala Baserrira - 20491 LEABURU • Tel.-Faxa: 943 673 499 • Tel. Mug.: 689 805 633

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Etxeko lantxoak egiten ikasiz

Bakoitzaren etxean gerta litezkeen matxurak konpontzeko, oinarrizkoa ikasten ari dira zonaldeko hainbat lagun ikastaroetan



Etxeko lantxoaren inguruko ikastaroan, irakaslearen esanei adi-adi egoten dira ikasleak eta gero praktikatu ere egiten dute. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

**H**erria pixka bat mugituarazi behar dutela eta, ama talde bat bildu dira lanerako gogoz eta ideia berriekin. Eta pentsatu eta egin!

Hasi, iaz hasi ziren, gurasoentzat informatikako ikastaroak antolatzen. Aurten ere, dagoeneko ari dira horretan: irakaslea bilatu, orduetegiak zehaztu, deialdia egin... eta martxan dira. Horrekin ari ziren bitartean bestelako burutazioak izan zituzten eta lanari ekin zieten. Besteak beste, gero etxeetan izaten diren hainbat motatako matxurak edota lantxoak egiteko ikastaroa antolatu dute: askotan hain erraz konpon litezkeenak izan arren jakin egin behar! Horretarako antolatatu dituzte bada, iturgintzako, elektrizitateko, kotxeen mekanikako eta altzarien berreskurapen ikastaroak. Guztietan herriko arlo bakoitzeko teknikoak ari dira erakustun, «egiten dugun guztia herriko jendearen artean egitea da ideia: batzuk erakusten, besteak ikasten, batzuk antolatzen, besteak... Edozer gauzatan, baina herriko jendea 'bustitzea' da helburu eta denon artean gauzak egitea», zioten antolatzaileek, ikastaro honetarako ez ezik, buruan eta jada martxan dituzten, baina oraindik ondu gabe daudenez erdi ixilka dituzten, bestelako egitasmo batzuen inguruan ere.

Horien berri jakin bitartean, ostegun iluntzean, Amazabal institutuko tailerrera joan ginen ikasten ari direna han bertan ikustera.

Orain, iturgintzako ikastaroa

egiten ari dira Juanito Saralegi irakasle dutela. Astean bina orduko bi saio dituzte, Leitza, Areso eta Goizuetako 16 ikasle hauek. Eta entzun ez ezik, praktikatu ere egiten dute han ikusi genuenez, sopletea eskuan aurkitu baikenituen.

«Etxean zer daukagun ikaste bakarra ere, oso interesgarria da: kalderaren funtzionamendua, termostatoarena...», zioen batek; «Beldurra kentzeko ere bai. Eskua sartzen ausartzeko. Eta nola egin ideia pixka bat hartuz gero, askoz hobe», zioen beste batek; «Iturgintzan ohikoak diren ixuriak nabaritzen ikasi dugu, eta zer egin daitekeen ere bai. Niretzat argigarria izan da, ordea, egin behar ez dena jakitea», zioen hirugarren batek; Dena buruan gordetzea ere ez dela erraza, baina «beti ikasten da zerbaite», erantsi zuten. Kontuak kontu, oso interesgarriak gain baliagarriak izan da, ordea, egin behar ez dena jakitea», zioen hirugarren batek; Dena buruan gordetzea ere ez dela erraza, baina «beti ikasten da zerbaite», erantsi zuten. Kontuak kontu, oso interesgarriak gain baliagarriak izan da, ordea, egin behar ez dena jakitea», zioen hirugarren batek; Dena buruan gordetzea ere ez dela erraza, baina «beti ikasten da zerbaite», erantsi zuten.

Ikastaro honetan parte hartzen ari diren gehienak emakumezkoak dira. Bi gizonzko bakkarik daude. Bestalde, «ikastaroak dirauen bitartean haurtzaindegi zerbitzua ere jarriz dugu, langile bat kontratatuta», han azaldu zigutenez. Kasu hauetan Babesturiko Gizalari Zerbitzuak lagundu ditu diruz, arrakastatsu suertatu diren ikastaro hauek.

Mertxe, Mila... eta gainerako enigmatismoetan parte hartzeko deia zabaltzen lana izan den dugula esanez, agurtu genituen ikasleak.

JUANITO SARALEGI ▶ ITURGINA

## «Askotan zer ez den egin behar jakitea garrantzitsuago da»

Iturgintzako ikastaroan irakasle lanetan ari da Juanito Saralegi eta oso gustura gainera.

**Ze nolako lana hartu duzu?**

Lehendabiziko aldia da horrelako lan batean ari naizena, irakasle, eta gustuko dut, benetan. Nere lanean aritzeko izanen dut beta gerogoa ere! Berriz errepikatzen moduko esperientzia.

**Zer ari zara erakusten bada?**

Batez ere, etxeetan dugun iturgintzako instalazioa ezagutzen ari gara: uraren eta gasaren zirkuituak. Eta ohikoak diren matxurak konpontzen edota gutxienez, etxean horrelako arazoren bat suertatzen denerako, zer egin behar den edo ez den jakitea da helburu. Askotan hori ere garrantzitsua baita.



J. ASTIBIA

**Nola bideratzen dituzte eskolak?**

Arbelean gutxi egiten dugu. Gehiena, eginez ari gara: tuntuak, termostatoen, berogailuak, ixuriak... Tresnak hartu eta erabiliz. ◀

EDURNE LAMUEDRA ▶ TEKNIKARIA

## «Oinarrizkoa jakitea, baliagarria da gerora»



J. ASTIBIA

Ikastaro hau diruz lagundu duen Babesturiko Gizalari Zerbitzuko teknikaria da Edurne Lamuedra.

**Babesturiko Gizalari Zerbitzuak ere hementxe dira.**

Bai. Antolatzaileak proposamen honekin etorri zitzaizkigunean, berehalakoan erabaki genuen diruz lagunduz, parte hartzea, programan parte hartzen ari diren gure langileentzatzat ere oso baliagarri irudi-

tzen baitzaigu, horrelako lanbideetan oinarrizko ezagutzak izatea, batez ere gerora begira. **Zueztat aurreneko aldia da?** Hala da. Baita herriko edozeinek parte hartzeko bidea duen lehen aldia ere. Harremanetarako ere oso baliagarri dela iruditzen zaigu gainera. ◀

LEITZA ▶

## Uharteko Aralar Mendi taldearengana doa Aurrera

Lurraldekako ligan, lehenengo taldean, bigarren lekuan dago Leitzako taldea

J. ASTIBIA

Gaur arratsaldean, Aurrera futbol taldekoak Uharteko Aralar Mendi taldearengana aurrera aritzen dira. Aurrera futbol taldearen aurka aritzekoak baitira.

Bi taldeek elkar oso ongi ezagutzen dute, bai maila honetan eta baita Preferentzen Sakana aldeko taldeen harrobia delako ere. Bi taldeen artean lehia handi samarra dagoela jakin dugu eta horrek partidua interesgarria izanen dela iragarriko luke, akaso.

Errepasoa

Kontuak kontu, Aurrerako mutilek denboraldia hasi zutenik, lehendabiziko itzularen erdia burutua dute lurraldekako Nafarroako liga honetan eta estatistikei erreparatzea ongi etorriko da jakinmina asetzeko besterik ez bada ere.

Horrela, Aurrera futbol taldea saikapean bigarren dago, 13 punturekin, Altsasuren ondoren (honek 18 ditu bere kontu partikularrean). Orain arte zazpi partiduko jokatutakoak izan dira eta hauetatik lau irabazi (bat kanpoan gainera Huartereekin) eta bi galdu, (kanpoan biak). Ligako aurreneko partidua bukatu zuten berdinketaz hain justu, etxean. Horrela eutsiz gero, berriz ere mailaz igotzeko ligaska jokatzeko moduan izanen lirarteke Leitzakoak. Gaur beste aukera bat dute.

hilberriak ▶ eskelak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 530258 ▶ tolosaldeko@tolosaldeko-hitza.info

## ✝ Pakita Morillas Urdampilleta

andrea

Atzo hil zen, 91 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bederikapean hartu ondoren.

-Goian bego-

Haren animaren zuzendaria: Iñaki Zubeldia; senarra: Jose San Sebastian Aguirre; seme-alabak: Koro eta Angel de la Fuente, Shekun Carmen eta Koldo Arcelus; bilobak: M. Koro eta Garro, Gorka, Kepa eta Olatz, Iñaki eta Garazi, Joseba eta Itziar; birloba: Sara; ezkon arreba: Anttoni Artola (Andres San Sebastianen alarguna); ilobak, lehengusak eta gainerako ahaidak.

Haren animaren alde oitutz bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitzela GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko BOSTETAN, BELAUNTZAKO SAN JOAN BATAIATZAILA parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

BELAUNTZA, 2004eko azaroaren 6a

Zuzenbidea: Plaza Ebe 2 (Belautza).

Aldian aldiko helbidea: Amaro auzoa 13, 2 B (Tolosa)

oharra ▶ gorputz beila Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan dago

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Alkiza.** Takolo, Pirritx eta Porrotx. 17:00etan Kultur Etxean.

**Bidegoian.** Azpeitiko IX. Udazkeneko Argazki Rallya Goiatzen eta Beizaman. Bihar 09:00etan Goiatzeko plazan eman behar da izena.

**Ibarra.** Menduurrena betetzen duela eta, meza nagusia izango da bihar 11:00etan Izaskungo ermitan. Ondoren hamaiketako bi tabernetan.

**Ibarra.** Bihar babarrun festa: eguerdian herri kirolak eta ondoren babarrun jatea.

**Orexa.** Kultur Hamabostaldia amaitzeko herri afaria Erdi Aroan girotuta 21:00etan eta ondoren erromeria Iñaki eta Garirekin.

**Tolosa.** Tolosa Bizirik plataformak udal hauteskundeetan lortu zituen 2.500 botoek Udalean ordezkari izan dezaten, sinadura bilketa egingo da kalean.

**Tolosa.** Urdirña txiki elkarteak 3. Xake Txapelketa Azkarra antolatu du bihar 09:30ean, Xake Elkartearen laguntzarekin. Interesatuak, elkartearen agertu.

**Vilabona.** Oinkari taldeak azken bi saioretako DVDak salgai jarri ditu, bakoitza 10 eurotan eta biak 15 eurotan. Astearte eta ostiraletan Txermin auzoan Jesusen Bihotza ikastolaren ganbaran eros daitezke 18:30etik 22:30era.

### ERAKUSKETAK

**Ibarra.** 2004ko jaietako argazkiak Kultur Etxean.

**Tolosa.** Nerea Lopez Lanzeta. Koadroak. Fronton kafetegian.

**Tolosa.** Ana Jesus Ansorenaren zeramikak. Lanbroa tabernan.

**Tolosa.** David Barandiaran. Margolanak Sorron dendan.

### MUSIKA

**Tolosa.** Inadaptats (Bartzelona) eta Izaera. 22:30ean Bonberenean.

### ZINEMA

**Tolosa.** *El diario de Noa.* Leidorren 19:30ean eta 22:30ean

# 710 etxe huts betetzeko

**TOLOSA ▶** Eusko Jaurlaritzako Visesak eta Udalak herrian dauden etxe hutsak alokatzen laguntzeko Bizigune programaren akordioa sinatu dute



Ricardo Ortega Etxebizitza zuzendaria, Jose Mari Vieites zinegotzia, Jokin Bildarratz alkatea eta Javier Madrazo sailburua. J. SAIZAR

### JOXEMI SAIZAR

**710** etxebizitza huts daude Tolosan Udalen arabera (947 INEren inkestaren arabera, etxe guztien %12), horietako asko Alde Zaharreen. Etxe horiek bete ahal izateko akordio bat sinatu zuten atzo udaletxean Javier Madrazo Etxebizitza sailburuak eta Jokin Bildarratz alkateak.

«Arazo asko daude udal bategan, baina etxebizitzaren da garrantzitsuen», esanez hasi

zen Bildarratz. Visesa erakunde publikoak bideratuko du programa berri hau eta Tolosa plaza Zaharreen bulegoa ireki berri duen Erretengibeak eramango du. www.etxebide.info webgunea eta 900 251 251 telefonoan dago informazioa.

Hutsik dauden etxe horiek merke alokatu ahal izateko Eusko Jaurlaritzak laguntza batzuz emango ditu. Jabeak merkatuko prezioa (560 euro gutxi gora behera) ordainduko dio, baina alokairuan sartzen denak bere diru sarreraren %30a

ordainduko du gehienez (235 euro gutxi gora behera). Gainera sukaldetan eta bainugeletan berrikuntzak egiteko 18.000 euro arteko laguntzak emango ditu, interesik gabe itzultzeko.

Gainera Etxebide programan sartuta dauden gazteek eskaintza honetan sartzeko aukera ere izango dute. Orain arte Etxebiden izena eman eta Bizigune programaren bidez 308 Bederatzi etxe bete dira horrela eta beste zortzi kasutan tramitetan ari direla erantsi zuen. «Sistema honen bidez bere-

halako irteera ematen diegu etxebizitzaren beharra dutenei, ekonomikoki interesgarria da etxe berria egitea baino merkeagoa delako eta hiri ja-sangarriak egiten laguntzen du, lurzoru gutxi dagoelako eta dagoena ondo aprobetxatu behar dugulako», adierazi zuen Etxebizitza sailburuak sinaduraren ekitaldian.

«Ezin dugu gero eta etxe gehiago egin, herriak gero eta gehiago handitu», erantsi zuen Tolosako alkateak.

### ZORION AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
Oihane Mendizabal (Donostia).  
Gaur 12 urte gure dantzariak.  
Muxu asko zure familiarean partez.

**HITZA, zorion agurren tartea**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
**HITZAren egoitzetara:**  
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**  
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!

